# SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOA

# OBRA NABARMENENEN KRONOLOGIA

## 1999

- Estalkien konpontzeko premiazko obrak eta kolapso arriskuan dauden aldeen behin behineko egonkortzea. Hego-transeptuaren adarrean andamioa eta nabeetan aldiz, altzairuzko trabes-eskorak erabiliz
- Plan Gidatzailearen aurkezpena, Katedrala, erronda pasabidea, triforioa eta dorrearen eszenografiko-argitazpena eta erakusketaren muntaketa
- Aiztogile kaletik sarbideen moldatzea, sarrera, atondoa eta eskailera, Sakristiaren egitura sendotzea eta indusketaren gaineko andamio-pasabideen bidezko bisiti-sistema.
- Plan Gidatzaileak agindutakoari jarraituz, egiturarentzako monitorizazio sistemaren handitze eta  hobekuntza.

## 2000

- Arkitektura aurreproiektuaren lehenengo krokisak, plan zuzentzailearen garapena.
- Aurretiko obren eta premiazko obren proiektua.
- Lehen egokitze-lanak Aiztogile kaleko 95. zenbakian.
- Katedral inguruko obrak: obrako patioa Santa Maria kantoian.
- Arkupea zaharberritzeko lanen hasiera: aldamioak ipintzea.
- Ondasun higigarriak zaharberritzea: koadroak eta irudiak eramatea eta lekualdatzea.
- Ikerketak eta azterketak: hezetasunen kontrola murruetan.

## 2001

- Arkitektura aurreproiektu orokorraren lehenengo bertsioa.
- Zurkaitzak eta nabeetako behin-behineko indargarriak exekutatzeko eta eraikitzeko proiektua (1. fasea).
- Bisitariak Hartzeko Zentroa (bolatoki zaharra) egokitzeko lanak eta proiektua.

- Aiztogile kaleko eraikinak zaharberritzeko lanak: Santa Maria Katedrala Fundazioaren bulegoak.
- Mantentze-lanak: estalki arteak, ingurabideko pasabidea eta abar.
- Monitorizazio sistema eguneratzea eta mantentzea.
- Arkupeko polikromiak ikertzeko eta zaharberritzeko proiektua: sarbide publikoa egiteko aldamio osagarriak jartzea, ekipoak eta behin-behineko argiztapena ezartzea.
- Ondasun higigarriak zaharberritzea: margolanak eta erretaulak.
- Ikerketak eta azterketak: hiru dimentsiotako fotogrametria berrikustea, morteroen azterketa petrologikoa, material arkeologikoaren analisia (karbono-14).

## 2002

- Exekuzio proiektua eta dorrea eta arkupea zaharberritzeko lanen hasiera.
- Nabean eta transeptuan zurkaitzak eta behin-behineko indargarriak eraikitzea (2. fasea).
- Zutabeak, pasabideak eta sarbiderako eskailerak ukondotzea (jarraipena).
- Barneko zurkaitz laguntzaileak: gurutzadura eta ataria, iparraldeko transeptuko izkinak eta hegoaldeko transeptuko gangen zinbriak zurkaiztea.
- Zaharberritze-lanak Aiztogile kaleko eraikinetan:
- Santa Maria Katedrala Fundazioaren bulegoak.
- Bisitaria Hartzeko Zentroaren (lehengo bolalekuaren) egokitzapena (jarraipena).
- Instalazioak: segurtasun sistemak eta suteen aurkako sistemak.
- Arkupeko polikromiak aztertzeko eta zaharberritzeko proiektua: polikromien elkarrekikotasunen azterketa (hasiera), gainazalen prestaketa, parametroen garbiketa.
- Ondasun higigarriak zaharberritzea: margolanak (jarraipena) eta arkeologia piezak.
- Ikerketak eta azterketak: kanpaiak eta dorreko harrian dauden patologiak zaharberritzeko azterketa.

## 2003

- Premiazko proiektua eta nabe nagusiko zutabeak sendotzeko obren hasiera.
- Santa Maria plazako behin-behineko estalkia eraikitzeko exekuzio proiektua eta horren hasiera.
- Nabean eta transeptuan zurkaitzak eta behin-behineko indargarriak eraikitzeko obrak (jarraipena).
- Dorrea eta arkupea zaharberritzeko obrak.
- Aiztogile kaleko eraikinak birgaitzeko obrak (jarraipena): bulegoak eta abar.
- Instalazioak: monitorizazio sistema, suteak hautemateko sistema eta tximistorratzen sistema eguneratzea eta mantentzea.
- Arkupeko polikromiak ikertzeko eta zaharberritzeko proiektua: 1. eta 2. faseen garapena.
- Ondasun higigarriak zaharberritzea: margolanak (jarraipena), sakristiako altzariak eta arkeologia piezak (jarraipena).
- Ikerketak eta azterketak: lan artistikoen inbentarioa eta fitxak, beirategiak berrikustea, barneko gainazaletako akaberen azterketa.

## 2004

- Dorrea eta Burulleria plaza argiztatzeko exekuzio proiektua.
- Obrako instalazio elektrikoaren proiektua.
- Santo Kristo kaperaren azpian, apezpikuentzako hilobi-kriptaren oinarrizko proiektua.
- Santa Maria plazako behin-behineko estalkia eraikitzeko obrak (jarraipena).
- Nabean eta transeptuan zurkaitzak eta behin-behineko indargarriak eraikitzeko obrak (jarraipena).
- Erdiko nabeko zutabeak sendotzeko obrak (jarraipena).
- Dorrea eta arkupea zaharberritzeko obrak: dorrearen kanpoko andamioaren jazarpena (jarraipena).
- Zaharberritze-lanak Aiztogile kaleko eraikinetan: Santa Maria Katedrala Fundazioaren bulegoak, girolara iristeko tunela eta abar.

- Arkupeko polikromiak ikertzeko eta zaharberritzeko proiektua: 2. fasearen garapena (jarraipena).

- Ondasun higigarriak zaharberritzea: margolanak (Gaspar de Crayer margolariaren 'Eraistea' (jarraipena), Carreño Mirandaren 'Sortze Garbia'), San Markoren erretaula eta sakristiako altzariak (jarraipena).

- Ikerketak eta azterketak: sakristiako polikromiak, katedralaren harrizko oinarria sendotzea, lan artistikoaren inbentarioa eta fitxak (jarraipena), ehunak zaharberritzea.

## 2005

- Arkitektura aurreproiektu orokorra: aurrerapena.

- Santa Maria plazako behin-behineko estalkia eraikitzeko obrak (jarraipena): altzairuzko egituraren fabrikazioa, indusketetarako bisiten eremua prestatzea.

- Erdiko nabeko zutabeak sendotzeko obrak (jarraipena).

- Dorrea eta arkupea zaharberritzeko obrak (jarraipena): fabrikak barrutik sendotzea eta arkupeko gangen arkugaina egonkortzea.

- Birgaitze-lanak Aiztogile kaleko eraikinetan: hargintza-lanak 95. zenbakian, bisitak sartzeko aretoaren argiztapena, premiazko lanak katedralari eta parrokiari atxikitako eraikinetan.

- Arkeologia hondarrak museo bihurtzea Burulleria plazan.

- Arkupeko polikromiak ikertzeko eta zaharberritzeko proiektua: 3. fasearen garapena (jarraipena).

- Ondasun higigarriak zaharberritzea: sakristiako funtsak.

- Ikerketak eta azterketak: lan artistikoaren inbentarioa eta fitxak (jarraipena).

- Aiztogile kaleko (87-89-91-93-95-97 zk) eraikinen eta fatxada orokorren jasotze planimetrikoa.

## 2006

- Arkitektura aurreproiektu orokorraren azken erredakzioa.
- Santo Kristo kaperaren azpian, apezpikuentzako hilobi-kripta exekutatzeko proiektua.
- Santa Maria plazako behin-behineko estalkia eraikitzeko obrak (jarraipena): altzairuzko egituraren azken muntaia eta indusketetarako bisiten eremua prestatzea.
- Zurkaitzak eta nabeko eta transeptuko behin-behineko indargarriak eraikitzeko lanak (jarraipena): nabeetako zutabeak ukondotzea eta zaharberritze-lanak bisitentzako pasabideetan.
- Nabeetako zutabeen oinarriak sendotzea: fabrikak eratzea eta hargintza (jarraipena), metalezko egitura laguntzailea eraikitzea.
- Zaharberritze-lanak dorrean eta arkupean (jarraipena): aurretiko eraisketa eta lanak, injekzioak zimendatzeetan, murruak tinkatzea, fabriken azaleko tratamendua, brontzezko arotzeriak, gangak zaharberritzea.
- Santo Kristo kaperaren azpian, hilobi-kripta eraikitzeko obrak: fabrikak zaharberritzea, hargintza eta igeltserotza.
- Birgaitze-lanak Aiztogile kaleko eraikinetan: hobiko baranda babesgarria, saneamendua eta zurkaitzak 85. zenbakian.
- Burulleria plazako arkeologia hondarrak museo bihurtzea: estalki egitura jartzea (jarraipena).
- Dorreko eta katedral inguruko argiztapena (jarraipena): obra zibila, indusketa eta zimenduak, farolak eta euskarriak eraikitzea, argiztapen ekipoak, instalazio elektrikoak dorrean eta Burulleria plazan.
- Arkupeko polikromiak ikertzeko eta zaharberritzeko proiektua: 4. fasearen garapena (jarraipena).
- Ondasun higigarriak zaharberritzea: margolanak eta sakristiako kupulako tondoak lekualdatzea.
- Ikerketak eta azterketak: lan artistikoen inbentarioa eta fitxak (jarraipena),
- zilargintzaren eta metalaren azterketa.

## 2007

- Nabeak zaharberritzeko-lanen proiektua eta horren hasiera: zimenduak eta solairuak.
- Zurkaitzak eta nabeko eta transeptuko indargarriak eraikitzeko obrak (jarraipena), bisitentzako pasabideak eta transeptuaren aldeko zutabeak ukondotzea.
- Dorrea eta arkupea zaharberritzeko lanak (jarraipena): kapitela eta dorrearen gorputz oktogonala zaharberritzea.
- Santo Kristo kaperaren azpiko hilobi-kripta eraikitzeko obrak: fabrikak zaharberritzea, hargintza eta igeltserotza (jarraipena).
- Sakristia zaharberritzea: kupula sendotu aurretiko obrak.
- Arkeologia hondarrak museo bihurtzea Burulleria plazan (jarraipena): adreiluzko hormatxoak altxatzea, harmailak eraikitzea.
- Dorreko eta katedral inguruko argiztapena (obra amaiera).
- Katedrala mantentzeko lanak: aldare nagusiko morteroak txikitzea, teilatua eta estalkiak konpontzea, zorroten zaharrak kentzea eta abar.
- Arkupeko polikromiak ikertzeko eta zaharberritzeko proiektua: 5. fasearen garapena (jarraipena), gangak eta arkubarnerak ostikoen artean.
- Ondasun higigarriak zaharberritzea: sakristiako altzariak zaharberritzea (tiradera-altzariak, bizkarraldea) (jarraipena), ehunak zaharberritzea, arkeologia piezak zaharberritzea (Iñiguez familiaren hilobia).
- Ikerketak eta azterketak: lan artistikoaren inbentarioa eta fitxak (jarraipena).

## 2008

- Nabeak zaharberritzeko lanak (jarraipena): zutabeen zimenduak sendotzea, lurzorua eraikitzea (1. fasea).
- Kapitela, alaka eta dorrearen gorputz oktogonala zaharberritzeko lanak (jarraipena): hargintza, egurrezko egitura, arbela, forjaketa eta abar.
- Santo Kristo kaperaren azpiko hilobi-kripta eraikitzeko lanak.
- Mendebaldeko arkupea zaharberritzeko lanen amaiera.
- Sakristiako kupula sendotzeko lanak.
- Zaharberritze-lanak Aiztogile kaleko eraikinetan (jarraipena):
- premiazko obrak 85., 87., 89., 91. eta 93. zenbakietan.

- Bisitaria Hartzeko Zentroa egokitzeko obrak (jarraipena): tentsio baxuko instalazio elektrikoak, laguntzaileak eta teilatuaren konponketa.

- Arkupeko polikromiak ikertzeko eta zaharberritzeko proiektuaren amaiera.

- Ondasun higigarriak zaharberritzea: sakristiako altzariak zaharberritzea (tiradera-altzariak, bizkarraldeak, ispiluak, erlojua, tondoak, lanpara, harmoniuma, erlikia-ontzia, kanta-liburua, eskultura polikromatuak, meza-liburuak), ehun multzoko piezak zaharberritzea, arkeologia piezak zaharberritzea (hilobiratzeko ehundurak), Etzanda dagoen Kristo zaharberritzea.

- Ikerketak eta azterketak: lan artistikoen inbentarioa eta fitxak (jarraipena).

## 2009

- Burualdeko alde ezegonkorrak sendotzeko exekuzio proiektua.

- Sakristiaren kanpoaldea eta kapitulu-gelako eremua zaharberritzeko exekuzio proiektua.

- Nabeak zaharberritzeko obrak (jarraipena): zimenduetan eraztun indargarriak eraikitzea, injekzioak zimendatzeetan eta egurrezko solairuak eraikitzea (1. fasea).

- Kapitela, alaka eta dorrearen gorputz oktogonala zaharberritzeko obrak (jarraipena): bukaera, kanpai-gorputzaren zoladura berria, kanpoko fabrikak eta abar.

- Santo Kristo kaperaren azpiko hilobi-kriptara sartzeko obrak: sarbiderako eskailerak eta kare-lisaketa murruetan.

- Birgaitze-lanak inguruko eraikinetan: fundazioko dendarako lokala birgaitzea, egokitzapen-lanak Bisitaria Hartzeko Zentroan.

- Birgaitze-lanak Aiztogile kaleko eraikinetan (jarraipena): premiazko obrak 85., 87., 91. eta 93. zenbakietan.

- Sakristiako ondasun higigarriak zaharberritzea: jaiotza, kantu-liburuak, meza-liburuak eta guadameziak.

- Ikerketak eta azterketak: lan artistikoen inbentarioa eta fitxak (jarraipena), katedraleko beirategiak katalogatzea.

## 2010

- Dorrea zaharberritzea: barneko egurrezko solairuak eta eskailerak zaharberritzea, harrizko gainazalak zaharberritzea eta fatxadako harri-hormen aurrealdea babestea.

- Kapitulu-espazioak zaharberritzea: kapitulu-gela, kalonjeen jantzigela eta bulegoak eta lan egiteko eremuak egokitzea, estalkiak konpontzea, egurrezko egiturak moldatzea eta berritzea.

- Burualdeko alde ezegonkorrak sendotzea (jarraipena): gurutzadurako eta presbiterioko zutabeetako zimenduak eta murruak egonkortzea, barnekoa trinkotzea kare hidrauliko naturaleko injekzioaren bidez eta hegoaldeko transeptuko gangetako hiru arkuak berrezartzea.

- Sarbideak berreraikitzea Santa Maria kantoitik: dagoen hargintzaren antzeko hareharrizko hargintzarekin lotura duten bi dorre eraikitzea.

- Dorrearen barneko sarbideak eraikitzea: dorrean, barneko komunikaziorako elementu komun bi eraikitzen hastea.

- Burualdeko kripta eta solairuak (hasiera): katedraleko burualdeko solairua berreraikitzeko obren hasiera, pasabide sistema bat eraikitzea kriptan, altuera ertainean, bai eta kriptaren sarbideak egitea ere.

- Amaitu dira Santa Maria katedrala egonkortzeko lanak, eta kendu egin dira gangak ikustea eragozten zuten 70 tona altzairu eta aldamioetako 20 $m^3$ egur.

## 2011

- Santa Maria kantoitiko sarbideak eraikitzea: dagoen hargintzaren antzeko hareharrizko hargintzarekin lotura duten bi dorre eraikitzea. Bi igogailu daude barruan, eraikinaren irisgarritasuna hobetuz horrela.

- Burualdeko alde ezegonkorrak sendotzea (jarraipena): Transeptuko kaperetan, kriptako girolan eta burualdeko arkuetan hargintza-gangak exekutatzea.

- Dorrearen kapitela eta gorputz oktogonala zaharberritzea: kanpoaldeko akabera, beruneztatua kanpoko terrazetan.

- Dorreko barneko sarbideak eraikitzea: arkupeko parpain-arkuen gainean zeharkako bi harlangaitz-horma, helize formako hiru tarte ditu eskailerak eta kanpaien gorputzeraino garamatzan igogailu panoramikoa.

- Aterperako obren hasiera, Aiztogile kaleko 87., 89. eta 91. zenbakietan.

- Burualdeko kripta eta solairuak (jarraipena): zutabeak beraien artean lotzeko arkuak eraikitzea zimenduen buruan. "T" alderantzizkatuaren forma duten dobela-arku horien gainean daude egurrezko solairuetako habe etzanak.
- Santa Maria kantoia berriro irekitzea, hamar urte itxita egon ostean.

## 2012

- Burualdeko kriptaren eta solairuetako obraren barruan, Santa Maria katedraleko nabeetako haritz-egurrezko solairuak exekutatzen hasi dira, Gasteizko elizbarrutiko 150. urteurrenean jarrita begirada.
- Hamar urte eta gero, horien gaineko egituretako eta pasabideetako behin-behineko zurkaitzak kendu dira. Horietatik egiten zen bisita katedraleko obretara.
- Katedralaren aterpetxeak ateak ireki ditu. Gazte eta erromesentzako tokia izango da, eta hiriko hirigune historikoan dago.

## 2013

- Katedraletako Obra-maisuen Nazioarteko Bilera.
- Santa Maria kantoian ur eta gas hartuneak egiteko lanetan, Espainiako kanpai-labe handiena aurkitu da.
- Katedraleko instalazio orokorretako obrak hasi dira: berogailua, megafonia, instalazio elektrikoa...
- Katedraleko nabeetako egurrezko solairuak egin dira.
- Antzinako harresiko hobia eta katedraleko nabeen azpiko arkeologia hondarrak ikustea ahalbidetzen duten egurrezko pasabideak exekutatzeko lanak hasi dira.

## 2014

- Amaitu dira katedraleko instalazio orokorren obrak: berogailua, megafonia, instalazio elektrikoa...
- Katedraleko bisitariek erabiltzeko instalazioak eta komunak dituen eraikina egin da.
- Zati batean exekutatu da tenpluko argiztapena: nabe nagusiak argiztatzen dituen bost argimutil.

- Gurtzari bideratutako katedrala zabaldu da berriro ekainaren 8an, eta gurtzari itxi zitzaionean kendu zen altzari artearen zati bat jarri da berriz.
- Aldamioen egitura kendu da; aldi berean, presbiterioko gangan zinbria lanak egiten zituen horixe.
- Katedraleko hegoaldeko fatxadako zimendatzea berritu da.
- Motore urritasunen bat duten pertsonentzako sarbidea ahalbidetu duten bi igogailu instalatu dira: Aiztogile kaletik kriptarainokoa da horietako bat, eta kriptaren goiko aldetik behe alderainokoa bestea.
- Sarbidea eman da iparraldeko fatxadatik Ebangelioko nabera doan eskaileraren bidez, hau da, gangaz estalitako eskailera makurraren bidez.

## 2015

- Argiaren arkupea inauguratu da Guardiako Erregeen Andra Mariaren elizan, eta Santa Maria Katedrala Fundazioak egin du.
- Ondarearen babesean, nanoteknologia erabiltzeko proiektu europar batean hartu du parte Santa Maria katedralak; harrizko materialak sendotzeko zereginean, zehazki.
- Plazako behin-behineko estalkia katedraleko burualdera eta transeptura lekualdatu da, horiek babesteko xedez, bertan burutuko diren obrak eta nahitaezko arkeologia ikerketak amaitu arte.
- Perimetroko kareharri zurizko bankada egin da katedraleko hegoaldeko fatxadan.
- Zimendatzea berritu da Santa Maria parrokian.
- Amaitu dira kriptaren beheko aldera sarbidea ematen duten egurrezko pasabideen eta eskaileren exekuzio-lanak.
- Ikerketa eta analitikak: Monumentuetako harrien babesean eta sendotzean nanomaterialak erabiltzeko Nanocathedral ikerketa-proiektua.

## 2016

- Elizpeko estalkien eta bera barne-guneen zaharberritzeko obrak gauzatu dira
- Traseptuko ipar-hastialeko egitura sendotzeko obrak burutu dira
- Alboko nabeetako estalkien zaharberritzeko obrak garatu dira
- Burualdeko kripten argiztapen arkitektonikoaren proiektua garatzea eta ezartzea

- Katedraleko girolako kaperen gaineko erlaitzaren proiektuaren obren hasiera
- Monumenturako musealizatzea, aterpea eta bisiten mantentze-lanak.
- Nanocathedral proiektuaren jarraipena.

**2017**

- Girolako kaperen gaineko erlaitzaren proiektuaren obrak gauzatzea.
- Elizpeko estalkien eta bera barne-guneen zaharberritzeko obrak bukatzea, arotzeriak barne, katedralaren zero kotatik dorreraino irisgarritasuna bermatzen duten estalki eta arrapala.
- Tenpluaren argiztatze-lanen hasiera, energia-aurrezkiari garrantzia emanez.
- Santa Ana portalaren zaharberritzeko proiektuaren erredakzioa.
- Monumentuaren mantenimenduzko lanak, bisitak, aterpea eta musealizazioa.
- Nanocathedral proiektuaren jarraipena.

**2018**

- NanoCathedral proiektuaren barruan dagoen nazioarteko workshop-a antolaketa. Mintegi teoriko-praktiko honetan AFA eta Santa Maria Katedrala Fundazioaren lana aurkezten da.
- Girolako kaperen gaineko erlaitzaren proiektuaren obrak amaiera.
- Burualdeko estalkien zaharberritzeko proiektuaren lanak hasten dira.
- Tenpluaren eta arte-lanen argiztepen lanak gauzatzen dira.
- Monumentuaren mantenimenduzko lanak, bisitak, aterpea eta musealizazioa.
- Nanocathedral proiektuaren jarraipena.

**2019**

- Katedralaren burualdeko kontrahormetan sendotze-lanak
- Burualdeko estalkien zaharberritze-proiektuaren barneko lanen amaiera
- Aitzogile kaleko 103 zenbakiko eraikinaren birgaitzen- proiektuko lanen hasiera

- Santa Anaren portaleren zaharberritze-proiektuko lanen hasiera
- Elizpearen gaineko gunearen argiztapen-lanak eta bere sarbidearen pasabidea gauzatu da
- Musealizazioa, Katedraleko Aterpeta, Bisitak eta monumentua mantentzeko lanak.
- Behe-tentsio instalazioaren, intrusio eta suteen kontrako instalazioaren, ate lerragarrien, igogailuen, transformazio-zentroaren eta segurtasu-soken arauzko azterketak.
- Arabako Foru Aldundiaren Zaharberrikuntza Zerbitzutik Santa Maria Katedralera artelanaren garraioa.

## 2020

- Aitzogile kaleko 103 zenbakiko eraikinaren birgaitzen- proiektuko lanen amaitzea.
- Santa Anaren portaleren zaharberritze-proiektuko lanak garatzea.
- Katedraleko transeptuaren estalkiak zaharberritzeko proiektuko lanen hasiera.
- Katedralaren burualdeko kontrahormak sendotzeko lanek aurrera jarraitzen dute.
- Burualdeko gangen gaineko gelan argiztatzeko lanak.
- Suteen aurkako sistema jartzea burualdeko gangen gainean.
- Katedraleko eta ondoko eraikinetako intrusioaren aurkako eta suteen aurkako sistemaren telefonogune berria instalatzea.
- Monumentua mantentzeko lanak, bisitak, aterpetxea eta musealizazioa.
- Intrusio eta suteen kontrako instalazioaren, ate lerragarrien, igogailuen, transformazio-zentroaren eta segurtasu-soken arauzko azterketak.

## 2021

- Santa Anaren portaleren zaharberritze-proiektuko lanak amaitzea
- Katedraleko transeptuaren estalkiak zaharberritzeko proiektuaren lanekin jarraitzea.
- Urte honetako kontzertu, ekitaldi eta kultur jardueretarako instalazio elektrikoa egokitzeko lanak.
- Igeltserotza-lanak, elektrizitate-lanak eta beheko aldamioa kentzea katedralaren mendebaldeko fatxada egokitzeko.
- Monumentua mantentzeko lanak, bisitak, aterpetxea eta musealizazioa.
- Intrusio eta suteen kontrako instalazioaren, ate lerragarrien, igogailuen, transformazio-zentroaren eta segurtasu-soken arauzko azterketak.

## 2022

- Katedraleko transeptuaren estalkiak zaharberritzeko proiektuan jasotako lanak amaitu arte garatzea.
- Girolako erlaitzak armatzea amaitu arte garatzea eta zinbriak kentzea.
- Katedralaren burualdetik aldamioa kentzea.
- Aiztogile 103ko eraikinean intrusioaren aurkako sistema instalatzea.
- Aiztogile 103ko eraikinaren instalazio elektrikoa.
- Instalazio elektrikoa egokitzeko lanak, urte honetan zehar egindako kontzertu, ekitaldi eta kultur jardueretarako.
- Katedraleko hainbat lekuetatik fibrozementuzko arrastoak kentzea.
- Monumentuaren bisitak, aterpetxea eta musealizazioarako mantentze-lanak.
- Arauzko berrikuspenak: transformazio-zentroa, igogailuak, ate lerragarriak, suteen aurkako eta intrusioaren aurkako instalazioa.

## 2023

- Katedralaren erdiko nabearen estalkiak zaharberritzeko proiektuaren lanen hasiera eta garapena.
- Aldamioa jarri eta kendu, eta plementua konpondu presbiterioan, dobelak birjarrita.
- Iparraldeko transeptuan jarritako altzairuzko tiranteak kentzea, bai fatxadan, bai katedralaren barruan.
- Aiztogile 103. zenbakian lehenengoz okupatzeko lizentzia lortzeko lanak amaitzea. Igeltserotza, pintura, klimatizazio eta leihoetako burdin hesietan.
- Santa Maria kantoitik katedralera bideratutako intrusioaren aurkako kamerak ordeztea.
- Bisitarien zentroan zaharkituta zegoen intrusioaren aurkako sistema ordeztea.
- Instalazio elektrikoa egunean jartzeko lanak: koadroak, argiak eta larrialdiak.
- Monumentuaren mantentze-lanak, bisitak, aterpetxea eta musealizazioa.
- Honako hauen arauzko berrikuspenak: transformazio-zentroa, igogailuak, ate lerragarriak, suteen aurkako instalazioa eta intrusioaren aurkako instalazioa.

## 2024

- Katedralaren erdiko nabeko estalkiak zaharberritzeko proiektuaren lanen garapena eta amaiera.
- Katedralaren hegoaldeko fatxadan babes-sareak jartzea.
- Tximistorratz berria jarri katedraleko dorrean.
- Ezagutzaren ibilbidea egokitzeko proiektua idaztea, katedraleko eta elizpeko instalazioak, plataforma jasotzaileak egokitzeko eta ordezteko obrak barne duena.
- Aiztogile kaleko 99. Zenbakiaren eraikinaren birgaitzeko proiektua idaztea.
- Katedrala, instalazioak eta egokitzapena ezagutzeko ibilbidea egokitzeko proiektuan jasotako lanen hasiera eta garapena.
- Plataforma jasotzaileak jartzea kriptan, eta igogailu erdi izabatua jartzea bisiten sarreran, Aiztogile kaleko 95. zenbakian.
- Intrusioaren aurkako sistema egokitzea 2. mailara, katedralean eta bulegoetan zaharkituta baitzegoen.
- Aterpetxean kamerak ordeztea eta espazio berrietan jartzea.
- Katedralaren elizpean instalazioak igarotzeko zanga ireki eta ixtea.
- Instalazio elektrikoa eguneratzeko lanak: koadroak, luminariak eta larrialdiak.
- Monumentua mantentzeko lanak, bisitak, aterpetxea eta musealizazioa.
- Honako hauen arauzko berrikuspenak: transformazio-zentroa, igogailuak, ate lerragarriak, bizi-lerroak, Suteen aurkako eta intrusioaren aurkako instalazioa.
- Suteen aurkako ptotekzio-instalazioa estalki zentralean eta transeptuan.

## 2025

- Ezagutzaren Ibilbidea Hobetzeko Proiektua idaztea, katedraleko instalazioak eta egokitzapen-obrak barne.
- Katedralaren Ezagutzaren Ibilbidea Egokitzeko proiektuan sartutako instalazioen lanak garatzea eta amaitzea
- Katedralaren Ezagutzaren Ibilbidea Egokitzeko proiektuan jasotako egokitzapen-lanak garatzea.
- Katedralaren Ezagutzaren Ibilbidea Hobetzeko proiektuan sartutako lanen hasiera eta garapena.

- Aiztogile 99 birgaitzeko proiektuan sartutako lanen hasiera eta garapena.
- Hautsa kentzea eta zikinkeria pilatzea Ama Birjinaren mainelean, errezelean eta irudian.
- Aterpetxeko patioaren gainean dauden kontrahormak mantentzea.
- Katedralaren eta elizpearen barruan hainbat lanetarako aldamioak jartzea eta ondoren kentzea.
- Monumentua mantentzeko lanak, bisitak, aterpetxea eta musealizazioa
- Honako hauen arauzko azterketak: transformazio-zentroa, igogailuak, ate lerragarriak, bizi-lerroak, katedraleko berokuntza-sistemako galdara eta ponpak, suteen eta intrusioaren aurkako instalazioak eta xukatzeko ponpak.